

Gabriele Garat
Ainhoa, Lapurdi (1895-1993)

Aurkibidea

Biografia

Ainhoa Plazako Irubea etxean sortu zen Gabriella GARAT 1895eko martxoaren 18an. Bere ama, menaiu atxikitzailea zena, horkoa zen. Aita, berriz, Ezpeletakoa zen eta ofizioz harakina eta janari saltzailea zen. Zuraiden 1993ko abenduaren 10ean zendu zen Gabriele, 98 urte zituelarik. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 18 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: lapurtera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.210

Zintak

AOA-002

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-12
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Beñat Larregain oilo ohoinaren istorioa

- **Erref:** AOA-002/001
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:12

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Beñat Larregainen istorioa kontatzen du. Mutikoa zela oiloak ebasten (lapurtzen) zituen bere amak sal zitzan. Baionarat eraman zuten epaitzera eta sei hilabeteko kondena jaso zuen.</p>

Transkripzioa

Ainhoan sorthu kitu seme Beriat Larregainen ixtorioa. Haur haurra zelarik, mutil bezala zagon Bastoinea deitzen den etxe batean, egonaren medioz etxekotu ondoan, hasi zen amak erakutsi ofizioan, "oilo ebasten". Semeak ebats eta amak sal Dantxarianian. Denborarekin ohartu ziren Bastoinekoak olioak eskasten zitzaizkatela; nahiz ez zakiten oraino nor zuten ohoina. Beñat gaizoak zuen galdu bere burua, bertze mutil Mixel Gallarhori erranez, bere ustez sekretuan, zer joko zuen egiten etxekoeri. Izan zen arrastatua eta Baionarat eremana. Tribunalean zen bitxi mutiko gaizoaren entzutea. Huna tribunaleko bitartekoaren eta Benat kituaren solasak: Hasi zelarik eskuaraz galdetzen bitarteko hori: "Egia deia zuk oiloak ebatsi tutzula?". Beñatek errepusta: "Gizon debrua emazu apalau, denek aituko dute zer galdetzen dautazun". Bitarteko jaunak errepusta: "Ai! adixkidea, lehenago zen denbora, lehenago gauza hortaz orhoitzeko, ez da hemen sekreturik". Gure Larregain izan zen beraz kondenatua itzalerat sei ilhabeterentzat. Bere presondeiko denbora beterik, lau liberako ogi bat galtzarrean, hartu izan zuen treinabidea billetik gabe. Bidez erdirat orduko izan zen arrastatua, galdatzen ziolarik [gizon kasketadun batek "votre billet". "J'ai perdu ... chertché, chertché nom de Dieu". Azkenean ezaguturik noikin zuen afera izan zen egarri, treinaz etorri naia, oinez etxerat.]

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com